

IRAKASKUNTZA-GIDA 2019/20

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25077 - Programazio Psikosoziala: Gizarte Zerbitzuak eta Komunitatea

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau Esku-hartze Psikosozialeko Minorreko hautazkoa da. Duela urte gutxi arte, Gizarte eta Komunitatearen Partaidetza izenekin, derrigorrezkoa zen. Horrek esan nahi du bertan azaldutako jakintza Psikologo ororentzat oinarrizkoa dela, ondorengo espezializazioa edozein izanda ere.

Testuinguru teoriko eta praktiko batetik abiatuz, eta emaniko eskolak, praktikak, tailerrak, mintegi nahiz irakurketa-ikasketa gehi tutoretzak, ikasleak bereganatuko ditu ezagutza eta trebakuntza berriak. Arazo sozialen irakurketa ekosistemikoa egiten ikasiko dugu, erlatibotasun kulturala eta historikoa ulertzen eta arazo sozialen analisisan gaitasun kritikoa sustatzen. Aldi berean, esku-hartze psikosozialaren oinarri teoriko eta praktikoen ezaguerak garatuko dira, psikologiaren beste adarretatik bereziz. Saiatuko gara gizartearen arazoei konponbideak emateko ahalmena garatzen, prebentzio eta esku-hartze proiektuen programazioaren bidez (diseinu, planifikazio eta ebaluazioa).

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Esku-hartze psikosozialaren inguruko eredu teorikoak eta aplikazio testuinguruak ezagutzea.
2. Zerbitzu sozialen estruktura, helburuak eta antolakuntza ezagutzea.
3. Dinamika komunitarioko estrategien elementu nagusiak ezagutzea.
4. Arazo sozialen inguruko irakurketa ekosistemiko bat egiteko gai izatea errealitate sozialaren inguruko analisi kritikoa bultzatuaz.
5. Beharrianak ebaluatzeko beharrezkoak diren teknikak ezagutzea.
6. Esku-hartze psikosozial bat planifikatzeko eta bere helburuak definitzeko gai izatea.
7. Proposamen eta informe teknikoak egin eta publikoki aurkezteko gai izatea.
8. Profesionalki esku hartzaile bezala agertzen diren dilema etikoetan erabaki hartzeko gai izatea.
9. Programa psikosozialearen inguruko informazio iturri desberdinak erabiltzeko gai izatea eta hau lortzeko beharrezkoak diren estrategien inguruko jakintza izatea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1 GAIA: Esku-hartze psikosozialaren psikologia.
Eskuhartze psikosozialaren objektuak
Ongizatea eta bizitza kalitatea
Behar eta arazo sozialak
Eskuhartze psikosozialaren definizioa eta helburuak

2 GAIA: Marko eta eredu teorikoak
Eredu sistemiko-ekologikoa
Psikologia komunitarioaren ekarpenak
Sostengu sozialen oinarritutako ereduak
Gaitasunen garapenean oinarritutako ereduak

3 GAIA: Eskuhartze estrategiak
Eskuhartze esparruak: testuinguruak eta alorrak/ eskuhartzearen gizataldeak edo erabiltzaileak
Eskuhartze estrategiak: prebentzioa eta birgaitzea
Psikologoaren errola: Funtzioak eta berezitasunak

4 GAIA: Diagnostikoa eta beharren ebaluaketa
Eskuhartze psikosozialaren prozesuaren ikuspegi orokorra.
Beharren ebaluaketa: estrategiak, teknikak eta tresnak

5 GAIA: Programen diseinuak eta ezarpena
Programen diseinua
Programen ebaluazioa

6 GAIA: Gizarte Zerbitzuen antolamendu eta funtzionamendua
Gizarte Babes Zerbitzuen ikuspegi orokorra. Gizarte Zerbitzuen garapena
Euskadiko Gizarte Zerbitzuen antolamendu eta funtzionamendua
Gizarte Zerbitzuetako esparru jakin batzuetako eskuhartzeen berrikuspen orokorra

METODOLOGIA

Eduki teorikoak eskoletan emango dira. Ikasturtean zehar ikasleek gehienez lau-bost pertsonaz osaturiko lan taldeetan, esku-hartze psikosozialaren programaren diseinu eta programazioan lan egingo dute. Esku hartze programaren diseinuaren oinarritzko atalak aurretiaz landuak izango dira ordu teorikoetan. Bestalde, ikasleek eGela-ren bidez lana burutzeko eman beharreko pausoak zehazten dituen Ariketen aurkibidea izango dute eskura. Lana hurrengo ataletan banatuko da:

1. Lan taldeen eraketa eta gaiaren aukeraketa.
2. Datu base zein dokumentazio iturri espezializatuen bilaketa bibliografiko orokorra.
3. Esku-hartze psikosozialaren programak izango dituen atal desberdinen lanketa:
 - a. I eta II ariketa: Programaren egokitasunaren azalpena eta landu beharreko beharrizan/arazoearekin harremandutako eredu esplikatioben berrikuspena.
 - b. III ariketa: Beste testuinguru batzuetan burututako antzeko programen diseinuen azterketa.
 - c. IV eta V ariketa: Helburuak zehaztu eta programak ze biztanleria jasotzen duen definitu.
 - d. VI ariketa: Esku-hartzeak izango dituen jardueren eta prozeduraren deskribapena.
 - e. VII ariketa: adierazleen deskribapena eta programa ebaluatzeko diseinua.

Ariketa bakoitzak gelakide eta irakaslearen aurrean aurkeztuko da mintegietan. Aurretik idatzizko aurkezpena irakasleari bidaliko zaio eta honek zuzenketa eta iradokizunak burutuko ditu. Ahozko aurkezpena mintegietan ere aurkeztua izango da, non ikasleek irakasle zein gelakideen feedback-a jasoko duten. Bestalde, tailer orduz ere baliatu daitezke ariketa hauek aurrera eraman ahal izateko. Ikasturtearen bukaeran, lan talde bakoitzak idatzizko lan bat aurkeztu beharko du, non bere osotasunean biltzen duen egindako lan guztia. Aldi berean, ahozko aurkezpen bat burutuko dute zentroko irakasleek osatutako epaimahai baten aurrean.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	10	10		2		6		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	15	15		3		9		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 35
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 45

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

A MODALITATEA:

Eduki teorikoen ebaluazioa (notaren % 50): Bi azterketa partzial egingen dira kurtsoan zehar. Lehenengoa egutegian aipatutako datan. Bigarrenak Kurtsoa bukatzean egingo da ofizialki ezarritako datan. Bakoitzak, azken notaren %25 balio du.

Azterketaren formatua beti berdina izango da eta denbora mugatua izango da. Lehen zatian, edukiaren jabetzeaz, galdera itxiak hiru aukera edota definizio laburrekin: notaren %12. Bigarren zatian, bi gaietatik bat aukeratu eta azaldu: notaren %8. - Hirugarren zatia, konpetentzia zehatzen ebaluazioa: %5.

B. Ariketa praktikoen ebaluazioa (notaren % 50): Praktika egin ahala ebaluatuko da modu jarraian. Azken puntuazioa (taldekide denentzat berdina) ebaluazio jarraian eta lanaren aurkezpenaren arabera ezarriko da. Gehienez, 5 punturekin baloratuko da.

Irakasgaiaren azken nota, aurreko noten baturan oinarrituko da, beti ere, atal teorikoaren azterketan gutxienez 2.5 eko puntuazioa lortuz gero eta lehengo praktikan 2.5 puntutakoa.

B MODALITATEA:

Eduki praktikoa eta teorikoen ebaluaketa (notaren %100): Eduki teorikoak eta ariketa praktikokoak barne hartzen dituen azterketa.

AZTERKETA DEIALDIARI UKO EGITEA:

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a baino handiagoa,

nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Etengabeko ebaluazioa ez denean, ikasleak azterketa deialdiari uko egiteko eskaria aurkeztuko ahal du fakultateko idazkaritza orokorrean, irakasleari igorritako eskaria eginik, gehien dela azterketaren aldi ofiziala hasi baino hamar egun lehenago.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikaslea B Modalitatean aurkeztu daiteke, notaren %100 balio duen azterketa bat eginez. Azterketak galdera motzak eta ariketa praktiko bat jasoko ditu.

Ez-ohiko deialdian, ikasleak amaierako azterketa egingo du data ofizialean.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak burututako ikasmateriala, eGelan eskura izango dena.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Alemán, M. C. eta Fernández-García, T. (2007) Introducción a los servicios sociales. Madril: UNED.
- Blanco, A. eta Rodríguez-Marín, J. (2007). Intervención psicosocial. Madril: Prentice Hall.
- Casas, F. (1996). Bienestar social. Una introducción psicosociológica. Bartzelona: PPU.
- Colegio Oficial de Psicólogos (1998). Perfiles profesionales del psicólogo. Psicología de la Intervención Social. Colegio Oficial de Psicólogos de España. <http://www.cop.es/perfiles/contenido/is.htm>
- Fernández, I., Morales, J.F. eta Molero, F. (2011). Psicología de la intervención comunitaria. Bilbo: Desclée De Brouwer.
- Hernández, B. eta Valera, S. (2008). Psicología social aplicada e intervención psicosocial (2. edizioa). La Laguna: Resma.
- Cabanas, M. eta Chacón, F. (1997). Intervención psicosocial y servicios sociales. Un enfoque participativo. Madril: Síntesis.
- Hombrados, M. I., García M. A., eta López, T. (2006). Intervención social y comunitaria. Malaga: Aljibe.
- Maya, I., García-Ramírez, M. eta Santolaya, F.J. (2007). Estrategias de la intervención psicosocial. Casos prácticos. Madril: Pirámide.
- Montero, M. (2003). Teoría y práctica de la psicología comunitaria. Madril: Paidós.
- Musitu, G., Herrero, J., Cantera, L.M. eta Montenegro, M. (2004). Introducción a la psicología comunitaria. Bartzelona: UOC.
- Sánchez, A. (2007). Manual de psicología comunitaria. Un enfoque integrado. Madril: Pirámide.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Chinman, M., Imm, P. eta Wandersman, A. (2004). Getting to Outcomes 2004. Promoting accountability through methods and tools for planning, implementation, and evaluation. Santa Monica, CA: RAND Corporation. http://www.rand.org/pubs/technical_reports/TR101.html
- Doyal, L. eta Gough, I. (1994). Teoría de las necesidades humanas. Bartzelona: Icaria.
- KU Work Group on Health Promotion and Community Development (2012). Community Tool Box. Lawrence, KS: University of Kansas. <http://ctb.ku.edu/en/default.aspx>
- Reboloso, E., Fernández-Ramírez, B. eta Cantón, P. (2008). Evaluación de programas de intervención social. Madril: Síntesis.
- Rubio, M.J. eta Varas, J. (2004). El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación (3. edizioa). Madril: CCS.
- San Juan, C. (1996). Intervención Psicosocial: Elementos de programación y evaluación socialmente eficaces. Barcelona, Anthropos.
- San Juan, C. (2001). Catástrofes y ayuda de emergencia: Estrategias de evaluación, prevención y tratamiento. Barcelona, Icaria.
- Serrano, I, eta Rosario, W. (1992). Contribuciones Puertorriqueñas a la Psicología Social Comunitaria. Puerto Rico: Edupr.

Aldizkariak

PSYCHOSOCIAL INTERVENTION / INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL
AMERICAN JOURNAL OF COMMUNITY PSYCHOLOGY
JOURNAL OF COMMUNITY & APPLIED SOCIAL PSYCHOLOGY
REVISTA DE PSICOLOGÍA SOCIAL APLICADA
REVISTA ESPAÑOLA DE INVESTIGACIÓN CRIMINOLÓGICA

Interneteko helbide interesgarriak

Grupo de Acción Comunitaria (GAC). <http://www.psicosocial.net/>
Australian Centre on Quality of Life. <http://www.deakin.edu.au/research/acqol/index.php>
Center for Public Policy Research. <http://cppr.ucdavis.edu/>
Center for Social Services Research (CSSR). <http://cssr.berkeley.edu/>
Community Psychology Research Team. <http://uregina.ca/hamptoma/>
Comunitarios CL. <http://www.comunitarios.cl/www/>
KU Work Group for Community and Health Development. <http://www.communityhealth.ku.edu/>
Oxford Social Research Group. <http://oxsrag.org.uk/index.htm>
Partnerships in Prevention Science Institute. <http://www.ppsi.iastate.edu/>
Prevention action. <http://www.preventionaction.org/>
Social Development Research Group (SDRG). <http://www.sdrp.org/>
Social Intervention Group (SIG). <http://www.columbia.edu/cu/ssw/sig/>
Social Interventions Research Group (SIRG). <http://www.newcastle.edu.au/centre/sirg/>
Social Research Centre. <http://www.srcentre.com.au/>
Social Services Research Group (SSRG). <http://www.ssrp.org.uk/index.asp>
Society for Community Research and Action. <http://www.scra27.org>

OHARRAK